


Maila	Mota	Izenburua	Helburuak	Edukiak	Deskribapena
3	Azt	 <p data-bbox="450 655 692 683">Zenbakien segidak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Batetik bederatziehun eta laurogeita hemeretzira zenbatzen, irakurtzen eta idazten jakitea.</li> <li>- Zenbaki bakoitiak eta bikoitiak bereiztea.</li> <li>- Zenbakien notazioa eta kontzeptuak erlazionatzea.</li> <li>- Buruz kalkulatzeko estrategiak erabiltzea. Batuketak eta kenketak buruz egitea.</li> <li>- Zenbakien segidak identifikatzea eta osatzea.</li> <li>- Batuketara hurbiltzea gehitu nozioa ulertuz.</li> <li>- Batugai berdineko batuketak biderketarekin erlazionatzea.</li> <li>- Matematika bitarteko dela, egoerak ebazten ondo pasatzea.</li> <li>- Ordenagailuaren teklatura erabiltzen hastea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Goranzko edo beheranzko zenbaki-segidak, zenbaki altuetatik edo zenbaki baxuetatik hasita. <b>K</b></li> <li>- Batuketak eta kenketak: batugai berdinekin edo batugai desberdinekin. <b>K</b></li> <li>- Teklatuaren erabilera: zenbakien teklak, mugitzeko teklak eta itzultzeko tekla. <b>P</b></li> <li>- Kalkulatzeko estrategiak erabiltzeko zaletasuna. <b>B</b></li> <li>- Hizkuntza matematikoa erabiltzeko interesa. <b>B</b></li> </ul>	<p>Erabiltzaileek segidak osatuko dituzte, pantailako zenbaki-gehiketak edo kenketak eginez. Teklatua erabiliko dute.</p>